

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

Ekoizpena automobilgintzan

Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua

[26/03/2020]

Irakasgaiaren koordinatzailea
Rosa María Rio Belver

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Atal honetan, 22. astetik ikasturtearen amaierara arte garatuko diren eduki teoriko-praktikoak jasoko dira, gaur egungo irakaskuntza ez-presentzialaren egoera kontuan hartuta.

1.FASEA: EKOIZPENAREN ANTOLAKUNTZA

1. GAIA: Ekoizpen prozesu motak eta beraien deskribapena (lada emanda dago klasean)
2. GAIA: Ekoizpen prozesuen diseinua. (lada emanda dago klasean, produktu anitzak eta OEEaren zatia Blackboard Collaborate bidez eman ziren)
3. GAIA: Lean Manufacturing

2.FASEA: EKOIZPENAREN KUDEAKETA

- 4.GAIA: Salmenta eta operazioen planifikazioa
- 5.GAIA: Ekoizpenaren planifikazioa. Ekoizpen Plan Maisua
- 6.GAIA: Materialeen beharren planifikazioa. Material Requirements Planning (MRP)
- 7.GAIA: Ahalmenaren plangintza. Capacity Requirements Planning (CRP)
- 8.GAIA: Ekoizpenaren programazioa. Oinplanuko kontrola (Operations Scheduling)

SEMINARIO eta LABORATEGIKO PRAKTIKAK

Simulazio industrialaren kurtsoa. Laborategian - www.flexsim.com (emanda dago)

2.

METODOLOGIA

Falta diren asteetan, eskola aldia bukatu arte, irakasgaiak eskola magistralak (3 ordu astean), ikasgelako praktikak (1 ordu astean) eta mintegiak (7,5 h) ditu.

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Eskola magistralak eta ikasgelako praktikak Blackboard Collaborate tresnaren bidez egingo dira, ez-presentziazko irakaskuntzarako, ohiko ordutegian. Horietan garatuko dira dokumentu honen 1. atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak.

Blackboard Collaborate bidezko eskolen ordutegia ohikoa izango da, Gasteizko Ingeniaritza Eskolako 2019-2020 ikasturteko egutegi akademikoa errespetatuz.

Ostegunetan 9:00-11:00

Ostiraletan 11:00-13:00

Ordu horiek erabiliko dira gai-zerrendan sakontzeko eta ikasleek dituzten arazo edo zalantzak argitzeko. Bestalde, tutoretza atal bat ere prest dago Egelan bertatik ordu horiez kanpo ikasleek dituzten zalantzak argitzeko Blackboard Collaborate bidez.

2.2. MINTEGIAK

Irakasgai honek 7,5 ordu ditu mintegietan. Ikasleek 3. gaiari buruzko bakarkako lan aplikatua egingo dute. Lean Manufacturing-eko bi erremintei buruzkoa hain zuzen ere eta irakasleak ebaluatuko duena.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Praktika hauek egin zituzten ikasleek “Workshop de simulación de Plantas Industriales, FlexSim (7,5 h)” kurtsoan.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Azterketa partziala aurrez aurre egitea ezinezkoa denez, ebaluazioa jarraia kendu da, ondorengoak izango direlarik portzentaiak:

% 25 Lean Manufacturing-i buruzko mintegia (ikasleek bidalitako lana ebaluatuko da).

% 25 online saioretan parte hartzea eta entregaturiko ariketen ebaluazioa.

% 50 azterketa finala (era ez-presentzialetan burutuko dute)

Azterketa gainditu behar da gainerako atalekin nota ponderatzeko.

4. OHIKO ETA EZ-OHIKO DEIALDIAK: ORIENTABIDEAK

Ohiko deialdian aurreko puntuan zehazturiko portzentaiak aplikatuko dira:

% 25 Lean Manufacturing-i buruzko mintegia (ikasleek bidalitako lana ebaluatuko da).

% 25 online saioretan parte hartzea eta entregaturiko ariketen ebaluazioa.

% 50 azterketa finala. Era ez-presentzialetan burutuko da (online) Maiatzaren 20an arratsaldeko 16:00etan.

Azterketa gainditu behar da gainerako atalekin nota ponderatzeko.

Dokumentu guztiak egela bidez jasoko dira.

Bestalde, **ez-ohiko deialdian** azterketa bat egin beharko da, irakasgaiaren %100 balioko duena. Hasiera batean, aurrez aurre egingo da ekainaren 26an arratsaldeko 16:00etan. Aurrez aurre ezin bada egin, ohiko deialdiko prozedura bera erabiliko da azterketa egiteko.